

MASTER OFIZIALA

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

SARBIDEA	1
NOLA ETA NOIZ EGITEN DA MASTER BATEAN ONARTZEKO ESKAERA?	1
ZER DOKUMENTAZIO AURKEZTU BEHAR DUT ONARPENA ESKATZEKO?	1
MASTER OFIZIALIK EGIN DEZAKET, DIPLOMADUNA BANAIZ, EDO LIZENTZIADUNA IZAN BEHAR DUT?	1
IRAKASGAIREN BAT GAINDITZEKO BADUT IKASKETAK BUKATZEKO, ESKA DEZAKET IKASPOSTUA ETA MATRIKULA EGIN?	1
ZER IRAUPEN DAUKA MASTER BATEK? NOIZ HASTEN DA IKASTURTEA?	2
LANEAN ARI NAIZ ETA EZIN NAIZ KLASE GUZTIETARA JOAN. ZER EGIN DEZAKET?	2
NIRE UNIBERTSITATE TITULUA ATZERRIKOA DA. HOMOLOGATU BEHAR DUT SARBIDEA ESKATU AHAL IZATEKO?	2
ZERTAN DIRA DESBERDINAK MASTER OFIZIAL BAT ETA TITULU BEREKI BAT?	2
MASTER OFIZIAL GUZTIAK BERDINAK DIRA?	2
AITORTZEN DIRA KREDITUAK BESTE MASTER BATENGATIK EDO LAN ESPERIENTZIAGATIK?	3
MATRIKULA, PREZIOAK ETA BEKAK	3
NOIZ ETA NOLA EGIN BEHAR DA MATRIKULA?	3
ZENBAT BALIO DUTE MASTERREK?	3
ORDAINKETA ZATITZEN AHAL DUT?	4
GUTXIENEZ ERE ZENBAT KREDITU MATRIKULATU BEHAR DIRA LEHEN IKASTURTEAN?	4
ZENBAT KREDITU GAINDITU BEHAR DITUT IKASKETEKIN JARRAITZEKO?	4
ALDATU NAHI DUT MATRIKULATU NAIZEN IRAKASGAJETAKO BAT. ZER EGIN BEHAR DUT?	4
NOIZ EGIN BEHAR DUT MASTER AMAIERAKO LANAREN MATRIKULA?	4
ZEIN BEKA ESKA DAITEZKE?	4
BADAGO BEKARIK IKASLE ATZERRITARRENTZAT?	5
GAINDITU DAITEKE MASTER OFIZIAL BAT KLASERA JOAN GABE?	5
BA AL DU NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAK ON-LINE EGIN DAITEKEEN MASTERRIK?	5
HOMOLOGATU NAHI DUT ATZERRIAN LORTU DUDAN MASTER TITULUA. ZER EGIN BEHAR DUT?	5

SARBIDEA

Nola eta noiz egiten da Master batean onartzeko eskaera?

Onarpen eskaera egiteko, [on-line aurreinskripzioa](#) egin beharko da eta behar diren agiriak epe barruan bidali edo aurkeztu. Behin onartua izan eta gero, matrikula online egin eta dokumentazioa Graduondoko Ikasketen Bulegora bidali behar duzu. Bulegoa NUPeko Administrazio eraikinean dago.

Normalean, aurreinskripzioa egiteko 2/3 aldi daude apirilatik aurrera. Kontsultatu [egutegia](#).

Nolanahi ere, [sarbiderako betekizun orokorren](#) hala badagokio, master tituluarenak diren edo unibertsitateak ezartzen dituen betekizun espezifikoen eta merezimenduak balioesteko irizpideen arabera egingo da onarpena. Aldez aurretiko betekizun horiek master bakoitzaren gidan daude kontsultagai. (Ikus [masterraren katalogoa](#))

Zer dokumentazio aurkeztu behar dut onarpena eskatzeko?

Oro har, hona hemen zer [documentazio](#) behar den:

- NAN / NIE / Pasaportea
- Masterrean sartzeko gaitzen duen titulua edo titulua eskatu izanaren frogagarria.
- Sarbideko titulazioko ikasketa-espediente osoa, batez besteko notarekin.
- Curriculum vitae eguneratua, beste merezimendu batzuk.
- NUPeko ikasleentzat; aski litzateke curriculuma aurkeztea eta alegatzen diren merezimenduak frogatzea.

Gainera, master jakin batzuetan berariazko dokumentazio gehigarria behar da; adibidez, [Irakasleak Prestatzeko Masterra](#) egiteko, Europako beste hizkuntza baten ezagutza frogatu behar da gutxienez B1 mailan.

Eskaera egiteko ez da jatorrizko dokumentazio konpultsatua aurkeztu behar. Bai, ordea, matrikula egiten denean.

Master ofizialik egin dezaket, diplomaduna banaiz, edo lizentziaduna izan behar dut?

Masterra zein den, lizentziatura bat, diplomatura bat edo gradu bat izango da. Master bakoitzeko onarpen betebeharrak zein diren jakiteko, master bakoitzaren [webgunean](#) heldu den informazioa begiratu beharko duzu.

Irakasgairen bat gainditzekoa badut ikasketak bukatzeko, eska dezaket ikaspostua eta matrikula egin?

Aurreinskripzioa egin eta onartua izaten ahalko zara, baldin eta ikasketak bukatzen badituzu eta titulua ezarritako epe barruan aurkezten baduzu. Baldintzapeko onarpenaren aukera hori ez dago irekia master guztietarako, eta master bakoitzaren zuzendaritza akademikoaren mende dago.

Onartzen bazaituzte, unibertsitate tituluaren jabe izan beharko duzu matrikula egiteko.

Zer iraupen dauka master batek? Noiz hasten da ikasturtea?

Masterrek 60, 90 edo 120 ECTS kredituko iraupena dute. Master gehienak urrian hasten dira. Kontsultatu egutegia master bakoitzaren web-orrian.

Lanean ari naiz eta ezin naiz klase guztietara joan. Zer egin dezaket?

Kasu horietarako, arduraldi partzialeko matrikula egiteko aukera dago eta gutxienez ere 20 ECTS kreditutakoa izango da ikasturte bakoitzeko.

Nire unibertsitate titulua atzerrikoa da ¿Homologatu behar dut sarbidea eskatu ahal izateko?

Bai, titulu homologatuta aurkeztu beharko duzu, gaitzen duten masterretan sartzeko (Zuzenbide, Ingenieria Industrial, DBH Irakasle etc.

Beste masterretan berriz ez da beharrezkoa zure titulua homologatzea, baina kontuan hartu onartua izatea ez dela titulua homologatzearen baliokidea. Unibertsitateak baieztatuko du ikasketa maila bat datorren dagozkion Espainiako unibertsitate titulu ofizialen mailarekin, eta aurkeztutako tituluak baimena ematen duen unibertsitate master batean sartzeko titulua eman duen herrialdean.

Titulua atzerriko unibertsitate batena bada, tituluaren eta egiaztatgiri akademikoaren kopia bana aurkeztu beharko du, biak legeztatuak (EBko kidea ez den herrialde batekoak badira, edo Norvegia, Islandia, Liechtenstein edo Suitzakoak ez badira), beren gaztelaniazko itzulpen ofizialarekin.

Zertan dira desberdinak master ofizial bat eta titulu bereki bat?

Master ofiziala graduondoko irakaskuntza da, titulu ofizial bat lortzera bideratua eta lurralde nazional osoan balio duena. Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalak (ANECA) araututa dago. Agentzia hori Hezkuntza Ministerioaren mende dago. Titulu berekiak, ordea, unibertsitateak berak onetsitako programak dira.

Doktoretza bat egiteko, master ofizial bat eduki behar da aldezturik.

Master Ofizialek erabateko ondorio akademikoak sortzen dituzte eta, hala bada, lanbide jarduera arautuak egiteko gaitzen dute. Lanbide espezializaziora bideratuak egon daitezke edo ikerlanetan hastera. Titulu berekiak, ordea, prestakuntza aurreratura eta lanbide espezializaziora bideratuta daude, prestakuntza mota malguagoa eta dibertsifikatuagoa eskaintzen dute, eta titulu eta ziurtagiri berekiak sortzen dituzte, izaera ofizialeko beste batzuek bestelakoak.

Funtsezko beste desberdintasun bat da soilik master ofizialetako ikasleek dutela zilegi Hezkuntza Ministerioaren beka orokorrak eskatzea.

Masterrek eta titulu berekiek aldeak dituzte matrikula-prezioei dagokienez, masterretan Hezkuntza Ministerioak eta autonomia-erkidegoek ezarritako tasak ordaindu behar baitira, eta titulu berekietan unibertsitateek ezarritako zenbatekoa. Oro har, azken horiek garestiagoak izaten dira.

Titulu berekietan ez dago dagozkien tasetan salbuespenak edo murrizketak egiteko aukerarik

Master ofizial guztiak berdinak dira?

Espanian hiru motako unibertsitate master ofizial daude:

- 1.-Ikerketakoak, zeinek ikaslea doktoretza egiteko prestatzen baitute.
- 2.-Profesionaltzen dutenak, zeinek arlo jakin bateko ezagutzetan sakontzen baitute.
- 3.-Gaitzen dutenak. Profesionaltzen duten masterrak dira, lanbide arautu batean jarduteko gaitzen zaituztenak eta Hezkuntza Ministerioak arautzen dituenak. Kasu honetan, Industria Ingeniaritzako, Telekomunikazio Ingeniaritzako, Irakasleen Prestakuntzako, Abokatutzako eta Nekazaritza Ingeniaritzako masterrak daude.

Aitortzen dira kredituak beste master batengatik edo lan esperientziagatik?

Bai, zilegi duzu [kredituen aitortpena](#) eskatzea, beste unibertsitateko ikasketa batzuetako irakasgaiak gaindituak baldin badituzu edo lan esperientziagatik. Prozedurak ezarritakoari jarraiki, lehenengo masterreko irakasgaietan matrikula egin behar duzu, hau da, automatrikularako programan agertzen zaizkizunetan eta, jarraian, kredituen aitortpena eskatu behar duzu eta dagokion administrazio tasa ordaindu Graduondoko Ikasketen Bulegoan. Eskabide bat ere aurkeztu behar duzu dagokion dokumentazioarekin batera Unibertsitateko Erregistro Orokorrean.

Behin eskaera ebatzi eta gero, dagokion jakinarazpena eta kredituen zenbatekoaren %a ordaintzeko ordainketa agiria jasoko dituzu, eta matrikula aitortutako kredituen kopuruarekin jaisteko aukera izango duzu.

MATRIKULA, PREZIOAK Y BEKAK

Noiz eta nola egin behar da matrikula?

Sartu berria den ikaslearen matrikula internetetik egiten da, eta gainera hau guztia aurkeztu edo bidali behar da: Txartel-neurriko argazkia, Noten egiaztagiria eta unibertsitate titulua (jatorrizkoa eta fotokopia edo fotokopia konpultsatua), beste unibertsitate batzuetatik datozen edo atzerriko ikasleen kasuan, [Zintzotasun akademikoaren aldarrikapena](#) izenpetua eta [tasen murrizketarako](#) eskubidea egiaztatzen duen dokumentazioa.

Aldiari dagokionez, zer epetan onartu den, horren arabera izango da. Esteka honetan daukazu kontsultatzeko ikasle berrin matrikula-epeak eta master ikasketekin jarraitzen dutenenak: [matrikula aldiak](#).

Zenbat balio dute masterrek?

Masterraren eta matrikulatutako kreditu kopuruaren arabera dago. Hala, Irakasleen Prestakuntzako, Abokatutzarako Sarrerako, Nekazaritza Ingeniaritzako, Telekomunikazio Ingeniaritzako, Industria Ingeniaritzako eta Informatika Ingeniaritzako masterretako lehen matrikula bat egiteak 1.700 euroko kostua dauka gutxi-gehiago, eta gainerako tituluek 2.700 eurotik gorako kostua dute.

Ordainketa zatitzen ahal dut?

Matrikula egitean ordaintzeko modalitatea hautatu beharko duzu: ordainketa bakarra edo lau epetan zatitua.

Gutxienez ere zenbat kreditu matrikulatu behar dira lehen ikasturtean?

Arduraldi osoko ikaslea izatea aukeratzen baduzu, gutxienez ere 60 kreditu eta gehienez ere 80 matrikulatu beharko dituzu, edo masterra bukatzeko gelditzen zaizun adina kreditu. ([Arduraldi arauak](#)).

Arduraldi partzialeko ikaslea bazara, gutxienez ere 20 kreditu matrikulatu beharko dituzu edota ikasketak bukatzeko falta zaizun adina kreditu. Hezkuntza Ministerioaren egoitza beka edo joan-etorrirako beka eskatu nahi baduzu, gutxienezko matrikula baldintza batzuk bete beharko dituzu

Zenbat kreditu gainditu behar ditut ikasketekin jarraitzeko?

Ikasturtea amaitzean, ikasleak gutxienez 6 ECTS kreditu gainditu behar izan ditu, gutxienez, ikasketekin jarraitu ahal izateko. Aitortutako kredituak eta baliokideturako eta egokitutako irakasgaietara dagozkienak ez dira kontuan hartuko. Iraupenaren gehienezko muga honako esteka honetan dago kontsultatzeko: [Iraupena](#)

Aldatu nahi dut matrikulatu naizen irakasgaietako bat. Zer egin behar dut?

Irakasgaien [matrikula handitu edo murriztu](#) murriztu daiteke, baldin eta irakasgaiak ematen hasi ez badira; hartara, matrikula aldatzeko eskabide ereduak aurkeztu beharko duzu, masterreko ikasketazuzendariak ados dagoela adierazi ondoren.

Noiz egin behar dut master amaierako lanaren matrikula?

Zilegi duzu gainerako irakasgaietara batera matrikulatzea edo bereiz, gainerako irakasgaiak gaindituak baldin badituzu. Epeari buruzko informazioa [hemen](#).

Zein beka eska daitezke?

Ikasleek aukera dute besteak beste Hezkuntza Ministerioako beka orokorra eta Nafarroako Gobernuak eskatzeko, Nafarroakoak badira. Entitate batzuek, gainera, masterrean espezializatzeko beka eskaintzen dituzte.

Hezkuntza Ministerioaren beka eskatzeko, lehen ikasmilako ikaslea ez bazara, gutxienez ere 7,00ko batez besteko nota izan behar duzu masterrerako sarbidea ematen dizuten alde aurretik ikasketetan edo 6.50ekoa gaitzen duen master batean. Horri begira, ikasketak teknikoetako batez besteko notak 1,17 koefizientearekin biderkatuko dira.

Masterreko 2. ikasmilako ikaslea bazara, aurreko ikasturtean matrikulatutako kredituen % 100 gaindituak izan behar dituzu eta gutxienez ere 7,00ko batez besteko nota aurreko ikasturtean edo 6,50ekoa gaitzen duen masterra baldin bada.

Horrez gainera zilegi duzu [NUPeko Lankidetzaren Beka](#) eta [Hezkuntza Ministerioaren Lankidetzaren Beka](#), eskatzea, deialdian eskatzen diren betekizunak betetzen baldin badituzu.

Badago bekarik ikasle atzerritarrentzat?

Unibertsitateak ez dauka nazioarteko ikasleentzako bekarik. Hona hemen era horretako bekar eskaintzen dituzten erakundeetako batzuk: [kontsultatu](#)

Gainditu daiteke master ofizial bat klasera joan gabe?

Oro har, graduondoko ikasketa ofizialak egiteko, klasera joan beharra dago.

Ba al du Nafarroako Unibertsitate Publikoak on-line egin daitekeen masterrik?

Bat bakarra, Masterra Osasunaren Sustapenean eta Gizarte Garapenean.

Homologatu nahi dut atzerrian lortu dudan master titulua. Zer egin behar dut?

Unibertsitatean homologatu behar da, Graduondoko Ikasketen bulegoan, tasa ordainduta eta honako webgune honetan adierazita dauden agiri guztiak aurkeztuta: [Tituluen homologazioa](#).